

nikus
ker.

GAZTEAK ETA INFORMAZIOA

43. TXOSTENA • 2023KO MAIATZA



AURKIBIDEA

1. ZER DA IKUSIKER	2
2. OHAR METODOLOGIKOAK.....	3
3. EMAITZAK	4
3.1 INFORMAZIOARI BURUZKO GALDERAK	4
4. LABURREAN.....	18

Nola aipatu: *Ikusiker (2023): Gazteak eta informazioa. UPV/EHU. www.ikusiker.eus*

Egileak: Edorta Arana, Bea Narbaiza, Garazi Sanchez, Itziar Zorita, Blanca

Miguellez eta Maialen Goirizelaia.

1. IKUSIKER

Euskal Herriko gazteek dauzkaten ikus-entzunezkoen kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilerak aztertzen ditu IKUSIKER ikerketak (Applika+ izeneko proiektua: US22/23).

Egitasmo hau, 2028-2019 ikasturtetik aurrera UPV/EHUko NOR taldeak, EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak, Tabakalerak eta Euskararen Erakunde Publikoak burutzen dute, tokian tokiko ikasketa-zentroekin elkarlanean.

Ikerketa gauzatzeko, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleez osatutako bi panel daude martxan eta aldiro-aldiro inkestak luzatzen zaizkie, 12-23 urte bitarteko gazte hauek dituzten portaerak ezagutzeko.



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus

2. OHAR METODOLOGIKOAK

Esku artean daukazun Informazioari buruzko txosten hau burutzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) bi mila ikasletik gorako panela osatu da. Unibertsitari hauek modu iraunkorren eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak (www.encuestafacil.com), beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen erabilerei buruzkoak. Landa-lana eta datuen kudeaketa egiteko Aztiker Soziologia Ikerlagunaren laguntza jaso dugu.

Txosten honetan aurkituko daitezke 2023ko maiatzaren 8tik 17ra bitartean, unibertsitate mailan informazioari buruz eginiko inkestaren emaitzak. Guztira, 1.451 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.

Dokumentu honek, gazteek informazioa jasotzeko sare sozialen eta telebistaren zein erabilera egiten duten jorratzen du.

3. EMAITZAK


3.1. INFORMAZIOARI BURUZKO GALDERAK

Panelistek informazioa kontsumitzeko duten ohituraz eta berau jasotzeko erabiltzen dituzten medioez galdetu da. Hasteko, unibertsitateko ikasle hauei aktualitateko informazioak pizten dien interes maila neurtu nahi izan da. Azterketa orokor batean datuek erakusten dute informazioa eduki interesgarria dela gazte hauentzat. Zehaztasunetara jotzen badugu ikusten da, % 46,9ri nahiko interes pizten diola informazioak. Soilik % 1,6ak dio ez diola batere kasurik egiten, eta % 7,1i ez zaio gehiegi interesatzen.

1. Irudia – Zenbaterainoko interesa sortzen dizu aktualitateko informazioak?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Informazioa asko interesatzen zait	162	11,2
Nahiko interesatuta nago	677	46,9
Batzuetan bakarrik	481	33,3
Ez zait asko interesatzen	102	7,1
Ez diot batere kasurik egiten informazioari	23	1,6
Guztira	1.445	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Jarraian, albisteak non ikusten, entzuten edo irakurtzen dituzten aztertu da. Beheko taulak erakusten du, ikasleen % 52k sare sozialak erabiltzen dituela. Ondoren, telebista kanal normalak dira gehien aipatzen direnak (%23,3). Panelisten % 7,5ek esan du ez duela albisterik ikusten, entzuten edo irakurtzen.

2. Irudia – Orokorrean, non ikusten, entzuten edo irakurtzen dituzu albisteak?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez dut albisterik ikusten, entzuten edo irakurtzen	108	7,5
Sare sozialak	751	52,0
Telebista kanal normalak	336	23,3
Internet	132	9,1
Irratia	24	1,7
Egunkariak	70	4,8
Herriko egunkaria edo aldizkaria	15	1,0
Bestelakoa	9	0,6
Guztira	1.445	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Ikus-entzunezkoak hain hedatuak dauden aro honetan, inkestan parte hartu duten gazte hauek informazioa zein modutan jasotzea nahiago duten jakin nahi izan da. Galdera honen helburua euskarri desberdinek duten indarra neurtzea izan da. Ikasleen % 47k albisteak irudi bidez ikustea nahiago du, % 27,3k testua lehenesten du, eta % 14k albisteak entzutea gehiago gustatzen zaiola aitortu du.

3. Irdia – Informazioa jasotzeko zer nahiago izaten duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Albisteak irakurtzea	394	27,3
Albisteak entzutea	203	14,1
Albisteak ikustea	678	47,0
Ez dakit	158	10,9
Besteren bat	11	0,8
Guztira	1.444	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Informazio lokalari buruzko galderak ere proposatu dira galdetegian. Galdera hauek, panelistek beraien gertuko albisteak kontsumitzeko joera duten edo ez argituko dute. Ikasle hauen % 37,5i, nahiko interes sortzen dio informazio lokalak, eta % 20,1ari, asko. Batere kasurik egiten ez diotenak % 2,5 dira.

3. Irdia – Eta informazio lokala interesatzen zaizu?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Bai, asko interesatzen zait	290	20,1
Nahiko interesatuta nago	542	37,5
Batzuetan bakarrik	460	31,9
Ez zait asko interesatzen	116	8,0
Ez diot batere kasurik egiten	36	2,5
Guztira	1.444	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.



Jarraian, bi azpi-atal aurkezten ditu txosten honek. Lehenengoak informatuta egoteko gazteek sare sozialen zein erabilera mota egiten duten aztertzen du eta bigarrenak, gazteek telebista bidez informazioa jasotzeko ohitura duten ikertu nahi du.

3.3.1. SARE SOZIALAK INFORMAZIO ITURRI MODURA

Lehen azpi-atal honetan, gazteek informatuta egoteko erabiltzen dituzten baliabide digitalak zeintzuk diren eta nola erabiltzen dituzten zehazten da. Era berean, albisteak jasotzeko formatu gustukoenez, bai eta informazioa jasotzeko edo alboratzeko arrazoiez ere galdetu da.

Lehendabizi, sare sozialetan eduki mota honek duen pisua neurtu da. Beheko taulak erakusten du, panelisten % 85,7k sare sozialak erabiltzen dituela informatuta egoteko..

4. Irudia – Sare sozialak erabiltzen dituzu informatuta egoteko?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	1.243	85,7
Ez	208	14,3
Guztira	1.451	100,0


Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.

Hurrengo taulak, panelkideen artean informazioa jasotzeko sare sozial erabiliena zein den zehazten du. Gehiengoak, % 38,7k, Twitter aipatu du. Gertutik jarraitzen dio Instagramek (% 35,5) eta hirugarren postuan, datu xumeago batekin, TikTokek (% 12,8).

5. Irudia – Zein da informatzeko gehien erabiltzen duzun sare soziala?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Twitter	476	38,7
Instagram	437	35,5
Tiktok	157	12,8
Youtube	78	6,3
Whatsapp	49	4,0
Facebook	13	1,1
Telegram	7	0,6
Twitch	2	0,2
Snapchat	1	0,1
Beste bat	10	0,8
Guztira	1.230	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Inkestako hurrengo galderarekin, ikasleek informazioa sare sozialetatik zein modutan jasotzen duten aztertu nahi da. % 62,4k, komunikabideek heuren sare sozialetan zabaltzen dituzten edukiak aipatu ditu. % 54,8k aldiz, sareko erabiltzaileek sortutakoak lehenesten ditu. Proposatutako diren horietatik, hirugarren aukera modura, lagunek komunikabideetatik hartu eta partekatzen dituzten edukiak nabarmentzen dira (% 37). Era berean, datu garrantzitsua lortzen dute youtuber, instagramer, eta tik tokarren azalpenek (% 33,6).

6. Irudia – Hauetako zein eduki kontsumitzen duzu sare sozialetan?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Komunikabide nagusiek sare sozialetan zabalitzen dituzten edukiak	776	62,4
Komunikabide txikiago edo alternatiboen edukiak	291	23,4
Nire lagunek komunikabideetatik hartu eta partekatzen dituzten edukiak	460	37,0
Sareko erabiltzaileek sortutako edukiak	681	54,8
Youtuber/Instagramer/TikToker batzuen azalpenak	418	33,6
Bestelakoak	18	1,4
Guztira	1.243	

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.



Zehatzago izate aldera, sare sozialetako formaturik gustukoenez galdetu da. Twitterreko hariak eta Instagrameko storyak izan dira gehien aipatu direnak (% 39,9 eta % 39,6, hurrenez hurren). Twitterreko txioak ere oso erabiliak dira panelelkideen artean, izan ere, % 32,2k informazioa horrela jasotzeko ohitura duela aitortu du.

7. Irudia – Sare sozialetan informatuta egoteko, zein da gehien gustatzen zaizun formatua?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Storyak	492	39,6
Twitterreko txioak	400	32,2
Twitter hariak	496	39,9
Testua bakarrik erabiltzen duen informazioa	216	17,4
Irudien bidez kontatzen diren albisteak	252	20,3
Azpituludun azalpen bideo laburrak	314	25,3
Pertsona batek kamerara begira egiten dituen bideo laburrak	260	20,9
Informazioa eskaintzen duten bideo luzeak	149	12,0
Infografiak	39	3,1
Podcastak	249	20,0
Bideo-podcastak	131	10,5
Bestelakoa	4	0,3
Guztira	1.243	

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Galdetegiko hurrengo galderak, ikasleek informazioa jasotzeko duten jarrera aztertu nahi izan du. Horregatik, informazioa alboratzeko ohiturarik duten galdetu zaie. % 61,3k “batzuetan” aukera aipatu du, eta % 12,6k “nahikoetan”. Panelkideen % 26,8k informazioarekiko jarrera baikorra du, eta beraz, ez ditu inoiz albisteak sahiesten.

8. Irudia – Azken aldian, sentitu duzu informazioa ez zenuela jaso nahi eta albisteak sahiesten ari zarela?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Inoiz ez	333	26,8
Batzuetan	762	61,3
Nahikoetan bai	156	12,6
Beti	30	2,4
Guztira	1.243	

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Informazioa “batzuetan” sahiesten dutenen datua hain esanguratsua izanik (% 61,3), emaitza horien zergatiak aztertu dira. Gehiengoak, alegia % 31,5ek esan du, gaur egun informazio kopuru handiegia dagoela eta horrek gogaitu egiten duela. Panelisten % 27,8k aitortu du ez zaiola fidagarria iruditzen jasotzen duen informazioa, eta % 15,8k eduki mota honek kalte egiten diola adierazi du.

9. Irudia – Informazioa alboratu baduzu, zergatik izan da?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Informazioak eragin kaltegarria dauka nire izakeran	197	15,8
Gaur egun informazio kopurua handiegia da, gogaitu egiten nau	391	31,5
Politikak, ekonomiak, nazioarteko arazoek denbora gehiegi okupatzen dute	136	10,9
Ez da fidagarria	345	27,8
Jendearen arteko eztabaidetara eramaten du	86	6,9
Informazioa sesgatua da, alde batera desorekatua	188	15,1
Ez dut astirik albisteak jarraitzeko	164	13,2
Nik zer egin dezakedan erabakitzen ez dit laguntzen	41	3,3
Informazioa korapilotsua izaten da, ez dute erraz kontatzen gertatutakoa	112	9,0
Ez dakit	163	13,1
Besteren bat	26	2,1
Guztira	1.243	


Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.



Jarraian, esaldi batzuk proposatu zaizkie panelistei, eta beraien adostasun maila zein den zehazteko eskatu zaie. Bi interes lerro proposatzen dira esaldi hauetan: lehenengoak sare sozialen eragina aztertu nahi du, eta bigarrenak, euskarazko edukien kontsumo mota. Adostasun maila handien erreparatu duen esaldia “sare sozialek eragin handia daukate jendearen iritzietan eta portaeretan” izan da. (% 49,7).

Hala ere, soilik % 6,4 azaldu da guztiz ados “sare sozialek sinesgarritasun gutxi dute” esaldiarekin. Gazte hauen % 44k komunikabideen webguneak erabiltzen ditu informatuta egoteko. Bigarren interes lerroari dagokionez, taulak honako erakusten du: inkestan parte hartu duten gazteen % 12,6k ez du aktualitateko informazioa euskarazko komunikabide lokalen bidez jarraitzen, aldiz, % 27,6ari, nahikoa gustatzen zaio herriko, hiriko edo auzoko irrati eta telebistaren bidez euskarazko informazioa jasotzea.

10.Irudia – Esan noraino zauden ados esaldi hauekin.




3.3.2. TELEBISTA INFORMAZIO ITURRI MODURA

Bigarren azpi atal honetan telebistak informazioa zabaltzeko funtzioa zer nola betetzen duen aztertu da. Hasteko, telebista informazio-iturri modura erabiltzen duten galdetu zaie ikasleei. % 67,9k baietz erantzun du, % 32,1ek aldiz, ezetz.

11.Irudia – Telebista erabiltzen duzu informazio iturri modura?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Bai	985	67,9
Ez	466	32,1
Guztira	1.451	100,0

Iturria: Ikusiker, 2020, maiatza.




Jarraian, maiztasunaz galdetu da. Orohar, astean 1-5 aldiko maiztasuna da ohikoena. % 28,6k astean behin ikusten du telebista informatuta egoteko, aldiz, % 21,2k esan du ez duela inoiz telebista erabiltzen helburu horrekin.

12.Irudia – Zenbatero erabiltzen duzu telebista informazio iturri modura?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Inoiz ez	308	21,2
Astean behin	415	28,6
Astean birritan	290	20,0
Astean 3-5 aldiz	297	20,5
Egunero	141	9,7
Guztira	1.451	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Gaur egungo telebistaren informazio eskaintza hain handia izanik, ikasleek informatuta egoteko zein kanal aukeratzeko jakin nahi izan da. EAEko eta Nafarroako unibertsitateko gazte hauen % 28,6k ETB2 aukeratu du. Bigarren kanal aipatuena ETB1 izan da % 18,4ko datuarekin. LA1 da hirugarren kate aukeratuena % 17,4ko portzentajearekin.

13.Irudia – Zein da informatzeko gustukoen duzun kanala?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
LA1	167	17,4
TELE5	129	13,4
ANTENA3	99	10,3
ETB1	177	18,4
ETB2	275	28,6
FDF	6	0,6
CUATRO	25	2,6
LASEXTA	52	5,4
#0	3	0,3
DIVINITY	1	0,1
ETB3	12	1,2
LA2	3	0,3
Beste bat	12	1,2
Guztira	961	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Telebista pizten duten aldiro, albisteei zenbat denbora eskaintzen dieten aztertu da ondoren. Orohar, panelistek ordu batetik beherako tartea eskaintzen diote eduki mota honi. % 43,2k, 20-39 minutu pasatzen ditu albisteak ikusten, eta % 34,7k 20 minututik behera.

14.Irudia – Zenbat denbora egoten zara telebistako albistegiak ikusten?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
20 minutu baino gutxiago	330	34,7
20-39 minutu artean	411	43,2
40-59 minutu artean	123	12,9
Ordubete - ordu eta erdi artean	63	6,6
Ordu eta erdi - bi ordu artean	13	1,4
Bi ordu baino gehiago	11	1,2
Guztira	951	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.



Baina, albistek ikusteko ikasle hauek egiten duten kanal aukeraketak, zerikusia izango ote du kanal horrek sortzen dien sinesgarritasunarekin? 0-10 eskala eskaini zaie panelistei kate horren fidagarritasun maila baloratu dezaten. % 26,6k, 8ko puntuazioa jartzen dio albistek ikusteko hautatu duen kanalari, eta % 22,7k, 7koa. Batezbesteko nota, 7,1 izan da.

15. Irudia – 0-10erako eskalan zenbateraino iruditzen zaizkizu sinesgarri kanal horretako albistegiak?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
10	63	6,5
9	145	15,1
8	256	26,6
7	218	22,7
6	113	11,7
5	94	9,8
4	25	2,6
3	20	2,1
2	14	1,5
1	10	1,0
0	4	0,4
Guztira	962	100,0
Batezbestekoa (0-10)	7,1	

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.

Batezbestekoa (0-10)



4. LABURREAN

- Panelisten % 46,9-ri nahiko interes pizten dio informazioak.
- % 85,7k sare sozialak erabiltzen ditu informatuta egoteko. % 38,7k, Twitter lehenesten du eta Twiterreko hariak (% 39,9) eta Instagrameko storyak (% 39,6) dira albisteak jasotzeko formaturik erabilienak.
- Ikasleen % 47k albisteak irudi bidez ikustea nahiago du, % 27,3k testua lehenesten du, eta % 14k albisteak entzutea aukeratzen du.
- % 37,5i, nahiko interes sortzen dio informazio lokalak,
- % 67,9k telebista erabiltzen du informazio-iturri modura, eta gehiengoak, % 28,6k, astean behin kontsumitzen du telebista helburu horrekin. Orohar, panelistek ordu batetik beherako tartea eskaintzen diote telebistan informazioarekin lotutako edukiak kontsumitzeari.